



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko maiatzaren 19a

47. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Mena izeneko programa garatu ez izanaren arrazoiari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (3. or.).
- Galdera, jakiteko noizko izanen du Nafarroako Gobernuak plan bat, Nafarroako ikastetxeetako irakasleek informatikako programa berariazkoen erabilerari buruzko prestakuntza izan dezaten eta informatikako baliabideak izan ditzaten, Ana Figueras Castellano andreak egina (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Lanbide Heziketako Kontseilua 2008ko abendutik hona bildu ez izanaren arrazoiei buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (4. or.).
- Galdera, Ablitasen aurkitutako nekropoliari eta hilobieiei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (5. or.).
- Galdera, kredituak eskatze aldera Nafarroako Gobernuaren abala lortu duten enpresei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (6. or.).
- Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko baliatu ziren tauletako datuei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (6. or.).
- Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko baliatu ziren behin-behineko taula makroekonomikoak igortzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (7. or.).
- Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko prozesuari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (8. or.).
- Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko metodoari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (8. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako aurrekontu orokorretan aurreikusitako datu makroekonomikoetarik zein ez diren beteko 2009an, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko erabili eta aintzat hartu diren datu guztiei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioa egiteko erabilitako diru-bilketak kontabilizatutako datuei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (10. or.).

- Galdera, Ablitasko hirigunean dauden abeletxeei buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (11. or.).
- Galdera, Nafarroako landa eremuetan LTDaren eta telefonia mugikorraren estaldura ziurtatze aldera Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (12. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen Zizur Nagusiko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko, eskola-esparrua berrurbanizatzeko gastua finantzatzeko aldera, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (12. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernua zergatik ari den moteltzen enpresen BEZaren itzulketa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (13. or.).
- Galdera, BEZaren itzulketa aurreratua inguruko neurriei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunaren arloan Nafarroako Arartekoak dituen eskumenak garatzeko txostena, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina (15. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuko langileen Estatutua aldatzeko proposamena. Aurkeztutako zuzenketak (27. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Mena izeneko programa garatu ez izanaren arrazoiari buruzkoa.*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Mena izeneko programa garatu ez izanaren arrazoiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ahoz erantzuteko honako ezohiko galdera aurkeztu du, maiatzaren 21erako eta 22rako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuako Gizarte Gaie-tako kontseilari García Malo andreak erantzun dezan:

Zergatik ez den garatu Mena izeneko programa, iragan otsailaren 15ean iragarri zen moduan?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko noizko izanen du Nafarroako Gobernuak plan bat, Nafarroako ikastetxeetako irakasleek informatikako programa berriazkoen erabilerari buruzko prestakuntza izan dezaten eta informatikako baliabideak izan ditzaten.*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko noizko izanen du Nafarroako Gobernuak plan bat, Nafarroako ikastetxeetako irakasleek informatikako programa berriazkoen

erabilerari buruzko prestakuntza izan dezaten eta informatikako baliabideak izan ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena:

Nazioaren egoerari buruzko eztabaidan, Gobernuak lehendakariak hezkuntzaren informatizazioa iragarri zuen, eta ikasle guztiak arbel digitalak eta ordenagailu eramangarriak izatearen alde egin zuen. Neurri horiek 2009-2010 ikasturtean jarriko dira abian Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleekin.

Neurri horiek begi onez hartu dira hezkuntza arlo esparru askotan, bai Espainian bai Nafarroan; izan ere, aurrerabide handia ekarriko dute hezkuntza-sistemaren modernizazioari dagokionez, hurren hezkuntza XXI. mendera egokituko baita. Bide horretan, funtsezkoa da irakasleen prestakuntzarekin hastea, Nafarroako Gobernuak hezkuntzarako dituen aurrekontuak handituta.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak tamalgarriztat eta taxugabetzat jo du neurri hori; izan ere, irakasleak ez dira alde

aurretik egokitu eta ez dira aurreikusi sistema informatikoetan sartu beharreko edukiak.

Gure ustez, Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak ordenagailu pertsonalak izan ditzaten abian jarriko den neurria egokia da, eta, dirudenez, tamalgarriztat hartu den gauza bakarra da irakasleek prestakuntzarik ez izatea.

Nafarroako ikastetxe publikoetako irakasle gehienek ordenagailua erabiltzen dute eskuarki lan tresna gisa, baina ikastetxeetan ez dute ez generik ez baliabide informatikorik erabilerari pertsonalerako, eta horrek galarazten du baliabide informatikoen erabilerak ematen dituen abantailak ahalik eta gehien aprobetxatzea, alegia, klaseak prestatzeko, materialak taxutzeko edo ordenagailuak ikasleekin erabiltzeko, tresna didaktiko eta lan tresna gisa.

Hori dela eta, hau jakin nahi dut:

Noizko izanen du Nafarroako Gobernuak plan bat, Nafarroako ikastetxeetako irakasleek informatikako programa berariazkoen erabilerari buruzko prestakuntza izan dezaten eta informatikako baliabideak izan ditzaten?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Nafarroako Lanbide Heziketako Kontseilua 2008ko abendutik hona bildu ez izanaren arrazoiei buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Lanbide Heziketako Kontseilua 2008ko abendutik hona bildu ez izanaren arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak maiatzaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zioen azalpena

Arlo desberdinetan nabarmentzen ari da Lanbide Heziketak duen garrantzia eta zein garrantzitsua den neurriak diseinatzea prestakuntza mota hori bultzatzeko, langile kualifikatuen kopurua areagotu dadin, eta, halaber, langile horiek kualifikazio egokiena izan dezaten lan merkatuan sartzeko eta gaitasunak eta jarrerak sendotzen laguntzeko,

hala nola ekimena, ikasteko ahalmena eta bizi osoan zehar ikastea. Moderna Planaren proposamenak har daitezke eredutzat. Kontuan hartuta prestakuntza arlo horren garrantzia eta Nafarroan neurri berritzaileak eta prestakuntzaren beharriaz netara egokituak abian jartzeak duen interesa.

Galderaren testua

Lanbide Heziketa bultzatzeko neurri egiazkoak behar badira, zergatik Nafarroako Lanbide Heziketako Kontseilua ez da bildu 2008ko abendutik hona,?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, Ablitasen aurkitutako nekropoliari eta hilobieiei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Ablitasen aurkitutako nekropoliari eta hilobieiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

2008ko abenduan, Ablitasko lurzatiak berrantolatze obrak egin zirenean, 38 hilobi zituen nekropoli bat aurkitu zuten. Nekropolia bisigodoen garaikoa izan liteke, V. mendetik VIII. era bitartekoa. Aztarnategia hirigunetik gertu dago.

2008ko irailean, lan horien esparruan, hiru pertsonaren hezur-aztarnak aurkitu ziren, nekropolia eta 38 hilobiak aurkitu ziren tokitik metro gutxi batzuetara. Tuterako 2. instrukzio epaitegiaren bidez eginitako auzitegi-azterketaren arabera, hondakinek ez zuten indarkeria zantzurik agertzen eta 100 urte baino gehiago zituzten.

Informazio horren ondorioz, 2008ko abenduaren 16an, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero eskatu zuen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak bisita egin zezan Ablitasko lurzatiak berrantolatze obratan agertutako nekropolia ikustera.

2009ko apirilko azkeneko astean, Nafarroa Bai parlamentu-taldeari jakinarazi zioten aipatu bisita ezin zela egin, aztarnategia berriro lurrez estali zutelako.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Zer azterketa egin ditu Nafarroako Gobernuak Ablitasen aurkitutako nekropoliari eta hilobieiei dagokienez?

2. Aztarnategia edo nekropolia eta hilobiak bisigodoen garaikoak al dira?

3. Nekropolitik gertu aurkitutako hiru gorpuak haren garai berekoak al dira?

4. Egin al da katalogo, artxibo edo datu eta informazio bilketarik aurkitutako nekropoliari, hilobieiei eta gorpuei buruz?

5. Zergatik estali dira berriro Ablitasen aurkitutako aztarnak?

6. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du aztarnategia berreskuratzeko plan edo proiekturik?

7. Nafarroako Gobernuak plan edo proiekturen bat prestatu badu, horren kopia bat jaso nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, kredituak eskatze aldera Nafarroako Gobernuaren abala lortu duten enpresei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, kredituak eskatze aldera Nafarroako Gobernuaren abala lortu duten enpresei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak erabaki zuen 300 milioi euroko lerro bat jartzea enpresek eskatzen dituzten kredituak bermatzeko. Orain arte, 20 bat enpresak jaso dute Nafarroako Gobernuaren abala kredituak eskatzeko, enpresa horiek likidezia izan dezaten.

- Zeintzuk dira kredituak eskatzeko 7,5 milioi euroko 20 abalak eskuratu dituzten enpresak?

- Diruz lagundutako proiektuaren kopia jaso nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko baliatu ziren tauletako datuei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko baliatu ziren tauletako datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Miranda jaunak ondokoa adierazi du, foru parlamentari honek eginiko galdera bati erantzunez:

“Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua egiterakoan, dirusarreraren konfigurazioa gutxi gorabeherakoa da, ez baitago formula zehatzik horiek kalkulatzeko. Politikako Zuzendaritza Nagusiko eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zerbitzu teknikoek eginiko zenbatespenak eta simulazioak izan ohi dira, zeinak oinarritzen baitira behin-behineko

taula makroekonomikoetan eta une bakoitzean kontabilizatutako dirubilketan eta aurreko urteetan izandako dirubilketetan.”

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zer datu agertzen ziren kalkulu hura egiteko erabili ziren taula makroekonomikoetan?

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko baliatu ziren behin-behineko taula makroekonomikoak igortzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko baliatu ziren behin-behineko taula makroekonomikoak igortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari Ekonomia eta

Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun diezai-on:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Miranda jaunak ondokoa adierazi du, foru parlamentari honek eginiko galdera bati erantzunez:

“Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua egiterakoan, dirusarreraren konfigurazioa gutxi gorabeherakoa da, ez baitago formula zehatzik horiek kalkulatzeko. Politikako Zuzendaritza Nagusiko eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zerbitzu teknikoek eginiko zenbatespenak eta simulazioak izan ohi dira, zeinak oinarritzen baitira behin-behineko taula makroekonomikoetan eta une bakoitzean kontabilizatutako dirubilketan eta aurreko urteetan izandako dirubilketetan.”

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Kalkulu eta simulazio horiek prestatzeko baliatu ziren behin-behineko taula makroekonomikoak igortzea nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko prozesuari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta

Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun diezai-on:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Miranda jaunak ondokoa adierazi du, foru parlamentari honek eginiko galdera bati erantzunez:

“Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua egiterakoan, dirusarreraren konfigurazioa gutxi gorabeherakoa da, ez baitago formula zehatzik horiek kalkulatzeko. Politikako Zuzendaritza Nagusiko eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zerbitzu teknikoek eginiko zenbatespenak eta simulazioak izan ohi dira, zeinak oinarritzen baitira behin-behineko taula makroekonomikoetan eta une bakoitzean kontabilizatutako dirubilketan eta aurreko urteetan izandako dirubilketan.”

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zer irizpide erabili zen eta nola egin ziren aipatu zenbatespenak eta simulazioak?

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko metodoari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko metodoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun diezai-on:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Miranda jaunak ondokoa adierazi du, foru parlamentari honek eginiko galdera bati erantzunez:

“Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua egiterakoan, dirusarreraren konfigurazioa gutxi gorabeherakoa da, ez baitago formula zehatzik horiek kalkulatzeko. Politikako Zuzendaritza Nagusiko eta

Nafarroako Zerga Ogasuneko zerbitzu teknikoek eginiko zenbatespenak eta simulazioak izan ohi dira, zeinak oinarritzen baitira behin-behineko taula makroekonomikoetan eta une bakoitzean kontabilizatutako dirubilketan eta aurreko urteetan izandako dirubilketan.”

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zein metodo erabili zen aipatu estimazioak eta simulazioak egiteko? Zehatz-mehatz azaltzea nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko Nafarroako aurrekontu orokorretan aurreikusitako datu makroekonomikoetarik zein ez diren beteko 2009an.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako aurrekontu orokorretan aurreikusitako datu makroekonomikoetarik zein ez diren beteko 2009an.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta

Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun diezai-on:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Miranda jaunak ondokoa adierazi du, foru parlamentari honek eginiko galdera bati erantzunez:

“Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua egiterakoan, dirusarreraren konfigurazioa gutxi gorabeherakoa da, ez baitago formula zehatzik horiek kalkulatzeko. Politikako Zuzendaritza Nagusiko eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zerbitzu teknikoek eginiko zenbatespenak eta simulazioak izan ohi dira, zeinak oinarritzen baitira behin-behineko taula makroekonomikoetan eta une bakoitzean kontabilizatutako dirubilketan eta aurreko urteetan izandako dirubilketan.”

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Aurreikusitako datu makroekonomikoetatik, zeintzuk ez dira beteko, itxuraz, 2009an?

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko erabili eta aintzat hartu diren datu guztiei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko erabili eta aintzat hartu diren datu guztiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERARENTESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta

Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun diezai-on:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Miranda jaunak ondokoa adierazi du, foru parlamentari honek eginiko galdera bati erantzunez:

“Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua egiterakoan, dirusarrerren konfigurazioa gutxi gorabeherakoa da, ez baitago formula zehatzik horiek kalkulatzeko. Politikako Zuzendaritza Nagusiko eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zerbitzu teknikoek eginiko zenbatespenak eta simulazioak izan ohi dira, zeinak oinarritzen baitira behin-behineko taula makroekonomikoetan eta une bakoitzean kontabilizatutako dirubilketan eta aurreko urteetan izandako dirubilketan.”

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Estimazioak eta simulazioak egiteko erabili eta aintzat hartu diren datu guztiak zehaztea nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioa egiteko erabilitako diru-bilketa kontabilizatuko datuei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioa egiteko erabilitako diru-bilketa kontabilizatuko datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun diezai-on:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Miranda jaunak ondokoa adierazi du, foru parlamentari honek eginiko galdera bati erantzunez:

“Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua egiterakoan, dirusarreraren konfigurazioa gutxi gora-beherakoa da, ez baitago formula zehatzik horiek

kalkulatzeko. Politikako Zuzendaritza Nagusiko eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zerbitzu teknikoek eginiko zenbatespenak eta simulazioak izan ohi dira, zeinak oinarritzen baitira behin-behineko taula makroekonomikoetan eta une bakoitzean kontabilizatutako dirubilketan eta aurreko urteetan izandako dirubilketan.”

Hori dela eta, parlamentari honek haxe jakin nahi du:

Estimazioa egiteko erabilitako “dirubilketa kontabilizatuko” datuak zehaztea nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Ablitasko hirigunean dauden abeletxeei buruzkoa.

MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, Ablitasko hirigunean dauden abeletxeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

1. Ingurumen Departamentuak ba al daki zenbat abeletxe dauden Ablitasko hirigunean?

2. Departamentuak ikuskapenik egin al du indarrean dagoen araudia betetzen duten jakiteko?

3. Departamentuak ba al daki abeletxe horiek sortzen dituzten usain-arazoez eta bestelakoek zer eragin duten herrian?

4. Departamentuak ba al daki herritarrek salaketak edo kexak aurkeztu ote dituzten abeletxeen egoerari buruz? Salaketarik aurkeztu bada, azal bedi zein fasetan dauden.

5. Sepronak aurkeztu al du abeletxe horietakoren bati buruzko salaketarik? Hala bada, jakin nahi dut zein izapidetze-egoeran dauden salaketa horiek, bai eta salaketa horien ondorioz departamentuak, abeletxeak direla-eta, neurririk hartu duen ere.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Nafarroako landa eremuetan LTDaren eta telefonia mugikorraren estaldura ziurtatze aldera Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako landa eremuetan LTDaren eta telefonia mugikorraren estaldura ziurtatze aldera Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuko lehendakari Miguel Sanz jaunak, 2009ko apirilaren 27an Erroibarrera eginiko bisitan, konpromisoa hartu zuen lurreko telebista digitala eta telefonia finkoa eta mugikorra ziurtatzeko; izan ere, zerbitzu horiek itzalguneak dituzte. Gaur egun, Nafarroako landa eremuan, gabedia handiak daude gai horri dagokionez; Nafarroako iparraldeko auzo eta baserrietan, Orbaibarren, Pirinioetan, Ameskoan eta Itzagaondoan arazoak dituzte telefonia mugikorrarekin eta lurreko telebista digitalarekin, eta zerbitzu horiek jaso gabe jarraitzen dute.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

- Nafarroako Gobernuak noizko du aurreikusita lurreko telebista digitalak estaldura osoa izatea Nafarroako iparraldeko auzo eta baserrietan?

- Nafarroako Gobernuak noizko du aurreikusita lurreko telebista digitalak estaldura osoa izatea Ameskoan, Orbaibarren, Pirinioetan eta Itzagaondoan?

- Nafarroako Gobernuak noiz konponduko du telefonia mugikorraren estaldura falta Itzagaondoan?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen Zizur Nagusiko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko, eskola-esparrua berrurbanizatzeko gastua finantzatze aldera.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen Zizur Nagusiko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko, eskola-esparrua berrurbanizatzeko gastua finantzatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Zioak

Hasiera batean Camino de Santiago ikastetxe publikoa hartzen zuen eskola-patioak 30 urte baino gehiago ditu. Denbora honetan beste bi ikastetxe eraiki dira, Erreniega eta Catalina de Foix –azken hori 2007an amaitu zen–, eta ikasleak eskola-esparru berean bildu dira. Ezin dugu ahaztu ikastetxe horiek eskualdeko izaera dutela.

Gainera, kontuan hartu behar da hondatzearen arrazoia izan daitekeela, neurri batean, Nafarroako

Gobernua, eskola-esparru horretan, etengabe aritu izana obretan eta konponketetan, Haur Hezkuntzako modulu aurrefabrikatuak edota Erreniega eta Catalina de Foix ikastetxeetako lanak.

Duela gutxi, Zizur Nagusiko Udalak mozio bat onetsi du, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen da Udalarekin hitzarmen bat sina dezan eskola-esparrua berrurbanizatzeko gastua finantzatze aldera.

Datu horiek ikusita, ondokoa jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Zizur Nagusiko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko aipatu eskola-esparrua berrurbanizatzeko gastua finantzatze aldera?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernua zergatik ari den moteltzen enpresen BEZaren itzulketa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernua zergatik ari den moteltzen enpresen BEZaren itzulketa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2009ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean sisteman likidezia sartzeko neurri bat, zeinaren bidez ahalbidetzen baita BEZaren itzulketa aurreratua, hileroko eginiko aitorpen baten bidez. Neurri horren erregelamendu bidezko garapenean ezartzen ziren kasuan kasuko erregistroan inskribatzeko bete beharreko berariazko baldintzak, bai eta hileroko aitorpena egiteko formula ere.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Nafarroako Gobernua zergatik ari da moteltzen enpresen BEZaren itzulketa, eta horrela Nafarroako enpresen likidezia oztopatzen?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, BEZaren itzulketa aurreratuaren inguruko neurriei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, BEZaren itzulketa aurreratuaren inguruko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2009ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean sisteman likidezia sartzeko neurri bat, zeinaren bidez ahalbidetzen baita BEZaren itzulketa aurreratu, hileroko eginiko aitorten baten bidez. Neurri horren erregelamendu bidezko garapenean ezartzen ziren kasuan kasuko erregistroan inskribatze-ko bete beharreko berariazko baldintzak, bai eta hileroko aitortena egiteko formula ere.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Lehena. Gaur egun aitorten hori egin dezaketen enpresetatik, zenbat daude inskribatuta, gaur egun, aipatu erregistroan?

Bigarrena. Gaur egun hileroko aitortena egin duten enpresetatik, zenbatek jaso dituzte itzulketa-eskubideari zegozkion kopuruak?

Hirugarrena. Nafarroako Gobernuak BEZaren hileroko aitortena dela-eta Nafarroako enpresei itzulitako kopuruen zenbateko osoa jakin nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunaren arloan Nafarroako Arartekoak dituen eskumenak garatzeko txostena, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea Nafarroako Arartekoaren bulegoak eginiko hurrengo txostenaren berri izan duela: "Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunaren arloan Nafarroako Arartekoak dituen eskumenak garatzeko txostena"

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunaren arloan Nafarroako Arartekoak dituen eskumenak garatzeko txostena, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (15. or.).
- II. Aldaketa egungo antolamendu juridikoan nola ahokutzen den (16. or.).
- III. Nafarroako Arartekoaren erakunde-egitekoa emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna dela eta (17. or.).
- IV. Nafarroako Arartekoaren eginkizunak emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna dela eta (18. or.).
 1. Eginkizun orokorra (18. or.).
 2. Nafarroako Administrazio Publikoen jardura-irizpideak, Nafarroako Arartekoak ikuskatu beharrekoak (18 or.).
- V. Esleitutako eginkizunak gauzatzeko ekintzak edo bitartekoak (23. or.).
- VI. Bitarteko pertsonalen eta materialen balizko beharrari buruzko erreferentzia (25. or.).
- VII. Eranskina: aplikatzekoak diren Estatuko eta Nafarroako lege nagusien erreferentzia (25. or.).
 1. Estatuko legeak (25. or.).
 2. Foru legeak (25. or.).

I. SARRERA.

2009ko martxoaren 16an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak honako erabakia hartu zuen, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eskatuta:

"Nafarroako Arartekoari eskatzea txosten bat egin eta aurkez dezan, eta, bertan, lege- edo erregelamendu-aldaketak proposa ditzan, bere eskumenak garatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek gizonen eta emakumeen egiazko berdintasunaren alorrean egiten dituzten politikak hobeki kontrolatze aldera."

Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak honakoa dio: Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, eta Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubide eta libertateak defenditzeko eta hobeki babesteko hautatzen du Nafarroako Parlamentuak.

Berdintasuna antolamendu juridikoaren balio nagusi gisa jasota dago Konstituzioan (1.1 art.). Berdintasun hori Konstituzioaren 14. artikuluan jasotako berdintasun formalean ez ezik, 9.2 artikuluan jasotako berdintasun substantiboan ere gauzatzen da. Izan ere, azken horrek botere guztiak behartzen ditu gizabanakoen eta taldeen berdintasun-baldintzak errealak eta eraginkorrak izan daitezen sustatzera (STC 216/1991, otsailaren 14koa, F.5).

Hartara, zalantzagabea da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna legegilearen agindu bat dela, eta Nafarroako Parlamentua agindu hori dela-eta ez dela entzungor geratu azken urteetan. Horixe erakusten dute orain dela ia zazpi urte Indarkeria Sexistaren Aurkako Neurri Integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea –martxoaren 7ko 12/2003 Foru Legearen bidez aldatu zen– eta Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna Sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legea onetsi izanak, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko abenduaren 13ko 14/2004 Foru Legean sartu izanak ere arauak egiterakoan arau berriak gizon eta emakumeen arteko berdintasunean izanen duen eragina ebaluatu beharra dagoela (52.1 eta 53.2 artikulua).

Nafarroako Parlamentuak 2002tik 2004ra bitartean egiazko berdintasuna lortzeko bidean eman zuen bultzada aurreratuaren ondoren, Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa onetsi zen. Lege hori, izan ere, aurrerapauso garrantzitsua da berdintasun hori lortzeko eta botere publikoen –oraingoan Estatu osokoen– konpromiso zehatza lortzeko helburu hori lortzea zailtzen edo eragozten duten oztopoak kentzearen. Azken arau horren berritasun garrantzitsuena da, zioen azalpenean azaltzen den bezala, bazterkeria-jokabideei aurrea hartzea eta berdintasun-printzipioa egiazko egiteko politika aktiboak aurreikustea. Horretarako, Estatuko legeak botere publikoentzako jarduketa-irizpide orokor batzuk ezartzen ditu. Haietan, izan ere, berariaz sartzen da emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunaren printzipioa, eta jarraibide batzuk ezartzen dira berdintasuna hurrengo arloetako politiketan ezartzeko, hirietan zein herrietan: hezkuntza, osasuna, lana, kultura, ekonomia, gizartea, etxebizitza, kirola, garapenerako lankidetzak, informazioaren gizartea eta behar diren gainerakoak. Azken batean, berdintasun efektiboaren printzipioa funtsezko printzipio gisa ezarri nahi da politikak formulatzeko eta botere publiko guztien jarduerarako.

Aurreko guztiari gehitu behar zaio, berriz ere Nafarroako Foru Komunitatearen arloan, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Plana (2006/2010), Nafarroako Gobernuak onetsitakoa. Plan horren helburu nagusia da zeharkako ekintzak eta ekintza positiboak bultzatzea, botere publikoen esparruan, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna bideratzen duten baldintza eta egitura sozialak sor daitezen laguntzeko, eta, halaber, Nafarroako gizartearen esparruan, aldaketa sozialerako prozesu baten

aitzindariak izatea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lor dadin bermatzeko.

Jada adierazi dugun bezala, txosten hau Nafarroako Parlamentuak adierazi duen borondateatik heldu da, hain zuzen ere konstituzio-eskubideak bermatu behar dituen erakunde bati, alegia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari, esleituriko eskumenak guztiz garatu eta zabal daitezzen, zertarako eta hobeki kontrolatzeko gizonen eta emakumeen egiazko berdintasunaren alorrean Nafarroako administrazio publikoek egiten dituzten politikak. Berdintasun hori lortzea, salbuespenik gabe, botere publiko guztiei dagokie, eta Nafarroako Parlamentuak iritzi duen bezala, erakunde honek helburu hori lortzeko bete dezakeen eginkizuna indartu egingen litzateke baldin eta Nafarroako Arartekoari arlo honetan dagozkion eskumenak eta ahalmenak argitasun handiagoz zehazten badira.

Modu sistematikoan, txostenean jorratzen dira, lehenbizi eskatutako arau-aldaketa antolamendu indardunean duen ahokaduraren gaia. Ondoren, Nafarroako Arartekoak emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunaren esparruan zer erakunde-eginkizun bete behar duen, dauzkan beste eginkizunen multzoaren barruan. Halaber, erakundeak orain betetzen dituen eginkizunak aipatzen dira xehetasun guztiekin, eta betebeharrak berri hori gauzatzeko erakundeak erabili ditzaketen ekintzak edo bitartekoak azaltzen dira.

II. ALDAKETA EGUNGO ANTOLAMENDU JURIDIKOAN NOLA AHOKATZEN DEN.

Beste ezer baino lehen, adierazi beharra dago egun Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak dauzkan eskumenetan emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunaren printzipioaren bermea ere sartzen dela, antolamendu juridikoaren balio bat baita hori. Hala eta guztiz ere, Eledunen Batzarraren iritziarekin bat etorritik, komenigarria da are gehiago zehaztea Nafarroako Arartekoaren erakundeak zer parte-hartze izan dezakeen berdintasun hori lortzeko eta jada lortutakoari eusteko, bai eta sexu-arrazoiengatik gerta daitezken zuzeneko nahiz zeharkako bazterkeria modu guztiak egiaz desagerrarazteko ere.

Erakunde honen parlamentu-izaerak eta antolamendu juridikoan diziplina ezartzeko balio duen lege-erreserbaren printzipioak beharrezko egiten dute –are arrazoi handiagoarekin legearen aurreko berdintasunari buruz ari garenean (Espainiako Konstituzioko 14. art.)– Nafarroako Arartekoaren jarduteko eremua eta aukerak zabaltzeko araua foru legearen mailakoa izatea.

Baldintza horretatik abiatuta, bi dira arrazoiz erabil daitezkeen aukerak antolamendu indarduna aldatzeko, hau da, iturrien sisteman sartzeko emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunarekin loturiko eginkizunak gehiago zehaztuko dituen foru legea, halakorik onesten bada. Ondoren azaltzen ditugunak dira bi aukera horiek:

1. Foru lege bat onestea, berariaz zehaztuko dituen Nafarroako Arartekoaren eginkizunak Nafarroako administrazio publikoek emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunaren arloan egiten dituzten politikak ikuskatzeari eta hobetzeari dago kienean. Aukera honen alde eginez gero, ez lego ke aurreko legeak aldatzeko beharrik.

2. Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea aldatzea, eta bertan xedapen gehigarri bat sartzea (laugarrena izanen litzateke), non aipagai dugun arlo zehatzean Arartekoak hartuko lituzkeen eskumenak eta eginkizunak zehaztuko liratekeen.

Erakunde honen iritziz, gomendagarriagoa da bigarren konponbide horren alde egitea; hau da, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen aldaketa puntuala egitea. Aldaketa horretan, laugarren xedapen gehigarri bat gehituko litzateke, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunaren bermeari dagozkion berariazko eginkizunekin. Eta horixe baieztatzen dugu zeren eta, Nafarroako Parlamentuak eskatuta berriki adingabeen babes delata eta esleitutako eskumen eta eginkizunak zabalteari buruz erakunde honek eginiko txostenean adierazitakoaz bestera, orain aztertzen ari garen gaiak izaera horizontala baitu, Nafarroako administrazio publikoen politika eta jarduera guztietan agertzen dena. Hori dela eta, administrazio jarduera guztiak ikuskatzeko Nafarroako Arartekoak duen eginkizunaren osotasunean proiektatzen da.

III. NAFARROAKO ARARTEKOAREN ERAKUNDE-EGITEKOA EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGIAZKO BERDINTASUNA DELA ETA.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari egiteko bat ezartzen dio: Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubide eta libertateak defenditzea eta hobeki babestea (1. art.). Herritarren eskubide horien artean dago, noski, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidea, zeina Konstituzioaren 14. artikuluan formalki aitortuta egoteaz gainera, berriki lege bidez arautu baita, batez ere Generoko Indarkeriari buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren eta Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunera-

ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren bitartez. Izan ere, arau horien xede nagusia da berdintasuna ez mugatzea soilik alderdi formalera, eta maila eraginkor, egiazko eta osotasunezko batera igoaraztea, Konstituzioaren 9.2 artikulua eskatzen duen bezala.

Aipatu ditugun lege organikoetatik lehenak helburu du indarkeriaren aurka jardutea. Indarkeria, izan ere, bazterkeriaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonen emakumeen gainetik izaten dituzten botere-harremanen agerkaria den aldetik, emakumeen aurka erabiltzen dute ezkontide ohiek edo emakume horiekin afektibotasuneko antzeko harremanen bitartez, bizikidetasunik egon gabe ere (1.1 artikulua), lotuta egon direnek. Legeak, gainera, babes integraleko neurriak ezartzen ditu, indarkeria horri aurrea hartzeko eta hura zehatzeko eta desagerrarazteko, bai eta biktimei laguntza emateko ere (1.2 art.).

Bestalde, Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunerako Lege Organikoak helburu du emakumeen eta gizonen tratua eta aukera berdintasunerako eskubidea eraginkor bihurtzea. Horretarako, bereziki, emakumearen aurkako bazterkeria desagerraraztea bilatzen du, hura inguruabar nahiz baldintza izan, bizitzaren esparru guztietan, eta, bereziki, arlo politikoan, zibilean, lanekoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean. Horren bidez, izan ere, Konstituzioaren 9.2 eta 14. artikulua garatuz, gizarte demokratikoagoa, zuzenagoa eta solidarioagoa lortuko dugu.

Jada adierazi dugun bezala, Nafarroako Foru Komunitateak, gainera, arloari buruzko araudi bereki zabala dauka: Indarkeria Sexistaren Aurkako Neurri Integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea, martxoaren 7ko 12/2003 Foru Legearen bidez aldatua; Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna Sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legea, eta 22/2002 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onetsi zuen otsailaren 26ko 16/2007 Foru Dekretua.

Arau horiez gainera, Nafarroako Gobernuak, Gizarte Gaietako Departamentuaren eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren ekimenez, Emakumeen eta Gizonen aukera berdintasunerako I. Plana (2006/2010) onetsi zuen, eta hura betetzen eta garatzen ari da.

Deskribatutako marko zabal horretan, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunaren arloan duen berariazko eginkizuna zehaztu beharko litzateke. Eginkizun hori indartu egin liteke ikuskapen-jarduera gauzatuko litzatekeen esparru orokorrak xehetasunez adieraziz gero.

IV. NAFARROAKO ARARTEKOAREN EGINKIZUNAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGIAZKO BERDINTASUNA DELA ETA.

1. EGINKIZUN OROKORRA.

Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna babesteari begira duen eskumena gauzatzeko, komenigarria dirudi Nafarroako Arartekoaren eginkizunak zehaztasun handiagoz definitzea. Horri dagokionez, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak, oro har, ematen dizkion funtzioez gainera, eta Nafarroako Parlamentuak erabakitakoa betetzeko, komenigarria litzateke, erakunde honen iritziz, foru legean laugarren xedapen gehigarri bat sartzea, eta hartan, lehendabiziko puntuan, erakundeak arlo honetan duen funtzio orokorra zehaztea.

“Foru lege honek aitortzen dizkion eginkizunak betetzen ari dela, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak bereziki zainduko du Nafarroako administrazio publikoek eta 1.3 artikuluan aipatzen diren gainerako entitateek emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunaren arloan garatzen dituzten politikak eta jarduerak hobetzea, eta sexua dela-eta gerta daitezkeen zuzeneko nahiz zeharkako bazterkeria moduak deuseztatzea.

Adierazi dugun bezala, hori ez da gaur egun ere Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren eskuetatik kanpo geratzen den zerbait. Izan ere, Arartekoak, erakundea arautzen duen foru legearen 1.1 artikuluan xedatuaren babesean, herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubide eta askatasunen babes-maila defendatzeko eta hobetzeko egiten du lan, zentzurik zabalenean. Hala eta guztiz ere, eginkizun hori xedapen gehigarri batean berariaz eta modu zehatzean bilduz, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak emakumeen eta gizonen berdintasun erreala, osoa eta egiazkoa lortzearen alde egiten duen lan proaktiboa indartzen da.

2. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN JARDUERA-IRIZPIDEAK, NAFARROAKO ARARTEKOAK IKUSKATU BEHARREKOAK.

Xedapen gehigarri horretan, bigarren puntuan, administrazio publikoen eta Nafarroako Arartekoari buruzko 4/2000 Foru Legeko 1.3 artikulua aipatzen dituen entitateen politika eta jarduerak, oro har, inspiratu behar dituzten irizpide batzuk zehatz litezke. Izan ere, Nafarroako Arartekoak, 1. idatzatian aipaturiko eginkizun orokorraren ildotik, haiek uneoro bermatu beharko ditu. Hauek izan daitezke irizpide horiek:

a) *Emakumeen aldeko neurri berariazkoak eta eraginkorrek arrazoizko moduan eta modu propor-*

tzionalean hartzea, gizonetikiko desberdintasun egoerak zuzentzeko.

Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna Sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legeak Nafarroako Gobernuaren eta haren menpeko erakunde eta entitateen helburu gisa aipatzen du generoko ikuspegia Administrazioaren jarduera guztietan txertatzea.

Bestalde, Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak betebeharrak ezartzen die botere publikoei, alegia, emakumeen aldeko ekintza positiboko neurriak hartzea, Konstituzioan ezarritako berdintasunerako eskubidea egiazko bihurtzeko.

Aipatu arauetan ezarritakoaren bidetik, Nafarroako Foru Komunitatearen arloan, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Planak erakunde publikoen helburu orokor gisa ezartzen du zeharkako eta ekintza positiboko politikak bultzatzea. Horrek, betiere, ekintzarako konpromiso zehatz bat eskatzen die Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoei. Hori dela eta, egokitzen jotzen da Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko Foru Legeak jasotzea Arartekoari berariazko ahalmena ematen zaiola ikuskatzeko, bere kabuz nahiz alderen batek eskatuta, lege-aurreikuspen horren betetzea eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hura betetzeko konpromisoa hartzen duen.

b) *Tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa hurrengo arloetako politiketan txertatzea, hirietan zein herrietan: hezkuntza, osasuna, lana, kultura, ekonomia, gizartea, etxebizitza, kirola, garapenerako lankidetzak, informazioaren gizartea eta behar diren gainerakoak.*

Berdintasun printzipioaren proiektzioa era askotako esparruetan gauzatu behar da. Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak politika publikoak oro har aipatzen ditu, eta botere publikoen jarduketan irizpide orokorrez gainera, hezkuntza, osasuna, informazioaren gizartea, etxebizitza-politika eta beste arlo batzuetan aurrera eraman beharreko ekintza administratiboak ezartzen ditu. Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak onetsitako Aukera Berdintasunerako I. Planak honakoak ezartzen ditu berariazko eskuhartzerako arlo gisa:

1. Sustapen ekonomikoa, enplegua eta prestakuntza.
2. Lurralde antolamendua eta etxebizitza.
3. Hezkuntza eta sustapena.

4. Osasuna eta gizarte ongizatea.
5. Kultura, jarduera fisikoa eta kirola, aisia eta denbora librea.
6. Herrietako emakumeak.
7. Familia, bizitza pertsonala eta lana bateratzea.
8. Emakumeen jabeakuntza eta parte-hartze sozial eta politikoa.
9. Emakumeen kontrako indarkeria.
10. Garapenerako lankidetzak.

Administrazioek tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa garatzen dituzten politiketan txertatzen ote dituzten ikuskatzeari dagokiona Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak berriaz duen eginkizun gisa jasotzen duenez legegileak, azpimarra berezia jartzen da Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna Sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak onetsitako Aukera Berdintasunerako I. Planean aurreikusitako neurriak egiazko egiteko beharrean. Gainera, planean zehaztuta dator esku hartzeko arlo bakoitzeko ekintzak garatzeko ardura nork duen.

c) Tratu- eta aukera-berdintasunen printzipioa aplikatzerakoan lankidetzarako eta elkarlanerako bitartekoak ezartzea, eta gizarte-eragileekin, emakumeen elkarteekin eta beste entitate pribatu batzuekin batera lan egiteko tresnak sustatzea.

Gizartearen parte-hartzeak, elkarteen mugimenduaren bitartez, herritarren eskubideen defentsa eta babesaren areagotzen ditu, are gehiago biztanleriako sektore behartsuenak ordezkatzen, babesten eta laguntzen dituzten elkartei buruz ari bagara. Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren zioen azalpenak agertzen duenez, egiazko berdintasuna lortzeko, subjektu publikoen konpromisoa ez ezik, partikularren arteko harremanen esparruan hura irmoki sustatzeko konpromisoa ere behar da. Eta sustapen hori, behin baino gehiagotan, elkarte mugimenduaren bitartez bultzatu ohi da.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak onetsitako Aukera Berdintasunerako I. Planak jasotzen duenez, Nafarroako emakumeen parte-hartze politikoa, sindikala eta elkarte arlokoa oraindik ere oso txikia da. Hori dela eta, aipatu planean diseinaturiko helburuen artean, emakumeen parte-hartze sozial, politiko eta sindikalaren garrantzia zabaltzea eta hari buruz sentsibilizatzea ageri dira, bai eta emakumearen presentzia sustatzea Nafarroako elkarteek osaturiko sarean.

Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna Sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legeak, bere artikuluetan, hartu beharreko neurri batzuk jasotzen ditu Nafarroako Gobernuak eta haren menpeko organoek eta entitateek gizarte eta politika arloetako bizitzan emakumeek parte har dezaten sustatzeko eta haien parte-hartzea areagotzeko; besteak beste, honakoak nabarmendu behar dira: genero berdintasunaren aldeko elkarteak bultzatzea eta arlo horretan aritzen diren elkartei sostengua –ekonomikoa zein bestelakoa– ematea (1.2 j) art.); foru legea garatzeko lanetan generoko gaitan aritzen diren elkarteak inplikatzeko, bereziki Nafarroako Emakumearen Institutuan ordezkaritza dutenak (1.2 k) art.); eta gizonen eta emakumeen parte-hartze sozial berdina helburu gisa duten emakumeen elkarteak, edozein motatakoak, sustatzeko kanpainak egitea –neurri horretan, oso kontuan hartuko dira emakumeen elkarte gutxi dauden Nafarroako aldeak–.

Hori dela eta, ez litzateke sobera egonen honakoak zehaztea, Nafarroako Parlamentuaren goi ordezkararen berriazko eginkizun gisa: berriazko lankidetzak eta elkarlanerako tresnen ezarpena zaintzea, eta gizarte-eragileekin lankidetzak-tresnak, emakumeen elkarteak eta beste entitate pribatu batzuk sustatzea.

d) Emakumeek lan merkatu librean duten parte-hartzea areagotzeko duten eta emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunean aurrerak egitea bideratuko duten politikak ezartzea.

Ministroen Kontseiluak 2007ko abenduan onetsitako Aukera Berdintasunerako Plan Estrategikoa (2008-2011) adierazitakoaren arabera, "berdintasuna ez da soilik iristen emakumeek lan merkatuan sartzearekin; herritar guztiak eta gizarte sektore guztiak konprometituko duten neurri batzuk ere eskatzen ditu (...). Beharrezkoa da, horrenbestez, maskulinoan ulerturiko berdintasunaren eredu tradizionaletik harantzago joan (lan merkatuan parte hartzeko berdintasuna), eta femeninoan ulerturiko berdintasunezko ordezko eredu bat proposatzea (horren abiapuntua da lehenetsia adin guztietako pertsonen bizitza-estandarretan dagoela).

Nafarroako Gobernuak Aukera Berdintasunerako I. Planean jaso du sustapen ekonomikoko, enplegu eta prestakuntzako ekintzak landu behar direla lan arloan emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna lortzeko. Ildo horretan, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari legokiokeen eginkizuna mugatuko litzateke, besteak beste, egiaztatzena Nafarroako administrazio publikoek ekintza-lerro batzuk ezartzen dituztela emakumeek enplegua lor dezaten sustatzeko, enpleguaren

kalitatea hobetzeko eta ordainsarrietan berdintasuna lortzeko, bai eta enpresen gizarte-erantzukizuneko ekintzak bultzatzeko ere.

e) Behar diren neurriak, eta behar adinakoak, ezartzea generoko indarkeria, familiako indarkeria eta sexu-jazarpeneko eta sexuarengatiko jazarpeneko modu guztiak desagerrarazteko.

Generoko Indarkeriaren Aurkako Babes Integraleko neurriei buruzko abuztuaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak babes integraleko neurriak ezartzen ditu indarkeria mota horri aurrea hartzeko eta hura zehatzeko eta desagerrarazteko, bai eta biktimei laguntza emateko ere.

Bestalde, Indarkeria Sexistaren Aurkako Neurri Integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legeak zenbait neurri arautzen ditu indarkeria sexistaren aurrean sentsibilizatu, hari aurrea hartu eta hura desagerrarazteko, bai eta eraso fisiko eta psikologikoetako biktimek babesteko eta haiei laguntza emateko neurriak ere; halaber, erasogileak berrezteko eta birgizarteratzeko mekanismoak ezartzen ditu.

Bi lege horiek jasotzen dituzten arauetan, botere publikoak premiatzen dira generoko indarkeria desagerrarazteko eta hari aurrea hartzeko. Arauek, gainera, hezkuntzaren arloa, arlo soziala, laguntzari dagokiona eta biktimekiko geroko lanaren arloa hartzen dituzte.

Aipatu arauen osagarri, Indarkeria Sexistaren Aurkako Neurri Integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onetsi zuen otsailaren 26ko 16/2007 Foru Dekretuak, generoko indarkeriaren biktimei arreta, babesa, laguntza eta aholkua emateko neurriak jasotzen ditu; gainera, jarduera-ildo zehatzak ezartzen ditu indarkeria mota horri buruz sentsibilizatze eta informatzeko, bai eta hari aurrea hartzeko ere.

Nafarroako Gobernuak onetsitako Aukera Berdintasunerako I. Planak esku hartzeko bederatzigarren arlo gisa seinalatzen du emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea eta tratatzea. Ekintzak garatzeko ardura duten erakundeen inplikazio handiena eskatzen duen arloetako bat da.

Atal honetan aurreikusitako eginkizuna, alegia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari berariz aitortzea neurri hauek –eta generoko indarkeria deuseztatzeko beharrezkoak diren gainerakoak– betetzen direla zaintzeko ahalmena, gainerako guztiak bezala, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak esleitutako eginkizunen markoan garatuko litzateke, eta beste ahalmen baten berariazko

aitorpenarekin osatuko litzateke: herri-akusazioa egin ahal izatea emakumearen aurkako indarkeria-kasuetan, Nafarroako Parlamentuak, larritasun arrazoiengatik, hala eskatzen dionean. Hartara, generoko indarkeriaren biktima diren emakumeak babesteko dauden mekanismoak indartuko lirateke, eta Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak parte-hartze aktiboa izanen luke emakumearen defentsan.

f) Ekintza positiboak garatzea bereziki zaurgarriak diren kolektiboetako emakumeek (besteak beste, gutxiengoetakoak, etorkinak, neskak, emakume ezgaituak, adineko emakumeak, emakume alargunak eta generoko indarkeriaren biktima diren emakumeak) dauzkaten zailtasun bereziak zuzentzeko eta gainditzeko.

Erakunde honetan egiten den lanaren poderioz metatutako eskarmentuaren bidez, egiaztatu ahal izan dugu inguruabar pertsonal eta sozial batzuk direla-eta une jakin batzuetan pertsona batzuk zaurgarritasun bereziko kolektiboetan daudela. Emakumeen kasuan, babesgabetasun kasu gehiago gerta daitezke, inguruabarrak metatzen direnean edo inguruabar horien arteko erlazioengatik; esate baterako: gutxiengo batekoa izatea, emakume etorkina izatea, ezgaitua izatea edo beste batzuk. Horrelako kasuetan, botere publikoen jardun koordinatu eta integrala eskatzen da, berarekin arlo berezi batean esku-hartze orokorra egiteko programak egitea ekarriko duena, toki jakinen batean nahiz Nafarroako eskualde batean. Horren kariatara, elkarteen, eragile sozialen eta administrazio zerbitzuen artean lan batzuk egiten dira batera, edo osasun-, gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuak koordinatuko dira, besteak beste. Gainera, batzuetan, ekintza positiboko neurriak hartu beharko dira, kolektibo horietan gertatzen diren desberdintasunak zuzentzeko. Hori dela eta, proposatzen dugu Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko Foru Legean eginkizun gisa sartzea horrelako ekintzak egiazki garatzen direla ikuskatzearena. Horren xedea da, ekintza horiek bete ezean, parlamentu-erakundeari bidezkoa dena iradokitzea, gomendatzea edo gogoraraztea, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 34.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

g) Amatasuna babestea, eta arreta eskaintzea haurdunaldiari, erditzeari eta edoskitzeari.

h) Emakumeen eta gizonen lana, bizitza pertsonala eta familiako bizitza bateragarri egitea bermatuko duten neurriak ezartzea.

i) Etxeko lanetan eta familiari arreta egiterakoan erantzunkidetasuna sustatzea.

Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak transkribaturiko irizpideak botere publikoen jarduteko irizpide orokor gisa jasotzen ditu berariaz.

Konstituzio Auzitegiak, epai askotan, amatasunak eskatzen duen babesa aipatu izan du, bai eta lana eta familia bateragarri egiteko neurriak ezartzeko beharra. Hartara, esate baterako, azaroaren 5eko 233/2007 epaian, honakoa dio:

“Konstituzioaren babes hori, emakumeengan eragina duten faktore diferentzialekin batera, ez da haurdunaldira mugatzen. Halaber, Espainiako Konstituzioko 14. artikuluan exijitutakoa haztatzeko, hain zuzen ere, lan merkatuan emakumearen berdintasuna egiazko bihurtzeko, beharrezkoa da inguruabar batzuei arreta eskaintzea; esate baterako, “emakumearen lan egoeran amatasunak eta edoskitzeak duten eragin berezia; hain zuzen ere, emakumeak –gizonak ez bezala– enpleguari eusteko dauzkan desabantaila errealak konpentsatu nahi dira. Estatistikako datuek ere horixe erakuste dute (esate baterako, zenbat emakumek –gizonek ez bezala– utzi behar duten beren lana inguruabar hori dela eta)” (SSTC 109/1993, de 25 de marzo, F. 6; 203/2000, de 24 de julio, F. 6; 324/2006, de 20 de noviembre, F. 4, y 3/2007, de 15 de enero, F. 2). Seme-alaba txikiak dituen emakumeak zailtasun ukaezin eta handiagoak ditu lanean hasteko edo lana edukitzeko; zailtasun horrek era askotako jatorriak dauzka, baina kategoria sozial hori desabantaila-egoeran argian uzten du egoera berean dauden gizonekin alderatuta, (SSTC 128/1987, de 16 de julio, F. 10, o 214/2006, de 3 de julio, F. 6, aipatutakoez gainera beste pronuntziamentu batzuk nahi badira).”

Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan azaldutako argudiatzearen arabera, Ministroen Kontseiluak 2007ko abenduan onetsitako Aukera Berdintasunerako Plan Estrategikoak (2008-2011) eta Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Planak lan harremanen eta enpleguaren arloko eredu bat garatzeko sustatu beharreko jarduketa-irizpideak eta neurriak jasotzen dituzte, erantzunkidetasuna errazteko lana eta familia bateratzearen.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren ikuskatze-lana Konstituzioaren printzipioetan oinarrituriko zaintza-lan bat denez, eta, horrenbestez, legezketasunaren kontrolaz besteko irismena duenez, arlo horretan gara dezakeen ikuskatzeak atzeman ahalko ditu antolamendu juridikoaren arau-hausteak eta urratzeak ez ezik, emakumeen

eta gizonen familia eta lana uztartzeko eskubideez zuzen baliatzea zailtzen edo eragozten dituzten gabeziak ere.

j) Administrazioaren esparruan hizkera ez-sexista erabiltzea.

Europako Kontseiluko Ministroen Batzarrak, 1990eko otsailaren 21ean, lengoaiaren sexismoa deuseztatzeari buruzko gomendio bat onetsi zuen. Hartan, honako neurriak iradoki zituen Kontseiluek: lehenbizikoa, lengoia ez-sexistaren erabilera sustatzea, ahal den neurrian, eta horren bidez kontuan hartzea emakumeak gizartean duen presentzia, egoera eta betekizuna, egun hizkeran gizonetzkoarekin gertatzen den bezala; bigarrena, testu juridikoetan, administrazio publikoan eta hezkuntzan erabilitako terminologia bat etortzea sexuen berdintasunaren printzipioarekin; eta, azkena, hedabideetan sexismorik gabeko lengoia erabiltzea.

Emakumeen Eta Gizonen Aukera Berdintasuna Sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legeak, besteak beste, honako berariazko neurriak aipatzen ditu berdintasuna erdiesteari begira: Administrazioaren dokumentuen azterketa, haietatik eta Nafarroako legedi indardunetik hizkera sexista ezabatzeko [1.2 b) art.]; neurriak hartzea administrazioek egiten dituzten azterlan, argitalpen eta publizitatean hizkeraren erabileran bazterkeriarik ager ez dadin, eta administrazio hizkeraren erabilera sexista ez izateko orientabideak emanen dituzten materialak prestatu eta zabaltzea, administrazioaren argitalpenetako estilo batasuna erraztu eta bermatzeko [1.2 c) art.].

Helburu hori –Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ere jasota dagoena– betetzeko Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak gara lezakeen ikuskapen-eginkizuna lagungarria izanzen litzateke Nafarroako administrazio publikoek helburu huraxe modu eraginkorrean bete dezaten.

k) Sektore publikoan, lanbide karrerarako, prestakuntzarako eta gizonetzkoen eginkizun berdinentzatik ordainsari berak jasotzeko eskubideak egiazki bermatzea.

Aurreikuspen horrek aipaturiko b), c), d), g) eta h) letretan jasotakoak osatzen ditu.

l) Ahaleginak egitea enplegu publikorako hautapen eta balorazio organoetan, burutza- eta ardurakarguetako izendapenetan eta erabakiak hartzerakoan emakumeen eta gizonen presentzia orekaturik egon dadin.

Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legeak, bere helburuen artean, emakumeek eta gizonen bizitza sozial eta politikoa presentzia berdina izan dezaten sustatzea markatzen du.

Ministro Kontseiluak 2007ko abenduan onetsitako Aukera Berdintasunerako Plan Estrategikoan (2008-2011) eginiko diagnosiaren arabera, emakumeen parte-hartzearen handitzea egiaztatu ahal izan da, funtsean, parlamentu-ordezkaritzan, eta askoz neurri txikiagoan, beste esparru batzuetan. Hori dela eta, aipatu planak helburu gisa ezartzen du emakumearen parte-hartzea handitzea, besteak beste, Estatuko administrazio orokorreko ordezkaritza eta zuzendaritza postuetan. Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berdintasunari buruz onetsitako planak, 8.2.1 ekintzan honakoa ezartzen du: ekintza positiboko neurrien ezarpena bultzatzea, emakumeen parte-hartze orekatuaren edo/eta parekidearen alde egiteko, batez ere ardurako lanpostuetan.

Helburu horiek guztiek ekintza zehatzak eskatzen dituzte aurrera eramanez badira, eta haien eraginkortasuna eta irismena Nafarroako Arartekoak balora ditzake.

m) Komunikabideetan gizarteko emakumeei eta gizonen buruzko irudi berdina zalea, anitza eta ez estereotipatua eman dadin sustatzea, eta emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa eza-gutu eta zabal dadin sustatzea.

Emakumeen eta Gizonen Egiatzko Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren III. titulua berdintasunari eta komunikabideei buruzkoa da. Titulu horretan berariazko arauak ezartzen dira titulartasun publikoko komunikabideetan berdintasuna sustatzeko, eta bazterkeriako edukia izan dezaketen publizitate-kasuak kontrolatzeko tresnak ere ezartzen ditu.

Bestalde, Generoko Indarkeriaren Aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak administrazio publikoari exijitzen die oinarrizko eskubideak babeste eta zaintze aldera legedia zorrotz beteko dela begira dezaten, betiere arreta berezia eskainiz emakumeek komunikabide guztietan pairatzen dituzten desberdintasun egoerak bideratzen dituzten jokabideak desagerrarazteari, lege indardunei jarraituz (13. art.).

Bestalde, Aukera Berdintasunerako Plan Estrategikoak (2008-2011), helburu estrategiko eta jarduera batzuk ezartzen ditu honako xedearekin: emakumearen irudi soziala bat ez etortzea menderatzean oinarrituriko estereotipo tradizionalak indartzen duen irudiarekin, eta irudi sozial horrek

ez dezan ukatu emakumeek ekintza sozialeko protagonistak gisa duten gaitasuna.

Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna Sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legeak, ekintza-neurri gisa, honakoa jasotzen du: komunikabideetan kanpainak programatzea, gizartea osorari zuzenduak, emakumeen parte-hartze sozialaren eta politikoa garrantziaz ohartarazteko [2. d) artikulua].

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak arlo horretan bete beharreko eginkizuna mugatuko da egiaztatzerako egiazki gizonen eta emakumeen irudi berdina zalea sustatzen duten neurriak artikulatzerako, eta berdintasunaren aurkakok diren jokabideak desagerraraztera.

n) Aldika berdintasun-printzipioaren ebaluazioa egitea, jarduera-eremu desberdinetan.

o) Aldika, aukera berdintasunerako planak edo programak onestea, eta haietan emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburua lortzeko eta sexu-arrazoiarengatik bazterkeria deuseztatzeko neurriak ezartzea.

Estatuko eta foru mailako arauetan aurreikusitako neurrien eta Nafarroako Gobernuak onetsitako Berdintasunerako Planean jasotako ekintzen aplikazioa ebaluatu egin behar da, haien guztien eraginkortasuna egiaztatzeko. Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. Planak, Nafarroako Gobernuak onetsitakoak, ebaluazioa aipatzen du hobetzeko prozesu gisa, ekintzak garatzeko markoaren barrenean, eta oztupoak eta premiak atzemateko, eta, kasua bada, ekintzak birdoitzeko beharrezko tresna gisa.

Planak aurreikusten du urte bukaeran Nafarroako Emakumearen Institutuak –gaur Nafarroako Berdintasunerako Institutuak– txostena eginen duela eta testu hori Nafarroako Parlamentura igorriko duela. Gainera, plana betetzen den azken urtean, 2010ean, kanpoko ebaluazioa eta amaierako txostena egin beharko dira. Azken txosten hori Nafarroako Parlamentuari igorriko zaio.

p) Emakumeek egiazko berdintasunerako duten eskubideari buruzko zabalkunde eta sentsibilizazio kanpainak egiten ditu.

Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna Sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legeak era askotako ekintzak jasotzen ditu administrazio publikoari estamentu guztiak –arloan politikokoak zein funtzionarioak– eta Nafarroako gizartea genero-berdintasuna dela-eta sentsibilizatzeko; ekintza horien artean dago Administrazioako langile guztiak genero berdintasunaren arloan hezteko [(1.2 a) art.]

eta komunikabide publiko zein pribatuetan kontzientziazio kanpainak egitea [1.2 i) art.].

Ekintza horiek aurrera eramatea funtsezkoa da erdiesteko administrazio guztiek, gizarte-eragileek, elkarteek eta, oro har, gizarte osoak kontzientzia har dezaten emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko aurrera egiteko premiari buruz. Horregatik, egokitzat jotzen da Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak administrazio publikoen gainean egiten duen ikuskapen lanetan sartzea kanpaina horiek egiazki egiten direla zaintzeko ardura; izan ere, eginkizun horrek zuzeneko lotura du txosten honetako m) letran jasotakoarekin.

q) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legeetan emakumeen alde ezarritako eskubideak errespetatzea.

Aurreko guztiak biltzen dituen eginkizun bat da, arlo honetan ezartzen diren neurri guztiak hartzen dituen.

Orain arte, Nafarroako administrazio publikoen jarduna inspiratzen duten irizpideak aipatu ditugu, hain zuzen ere Nafarroako Arartekoak ikuskatu beharko lituzkeenak. Horrenbestez, administrazio publikoek berek dauzkaten irizpideak dira, eta haien berme eta betetze objektiboaren helburua Nafarroako Arartekoak bere gain hartzen du, herri-tarren eskubideak zaintzeko bere xede instituzionalaren baitan.

V. ESLEITUTAKO EGINKIZUNAK GAUZATZEKO EKINTZAK EDO BITARTEKOAK.

Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna dela eta esleitutako eginkizunak eta eskumenak, or har, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legean jasotako erregulazioaren baitan garatuko liriteke.

Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Arartekoak emakumearen eta gizonaren egiazko berdintasunaren bermatzaile gisa duen eginkizun instituzionala indartzeko, beharrezkotzat jotzen da laugarren xedapen gehigarrian beste lau puntu sartzea: berdintasunaren printzipioaren urraketarik atzematen den kasuak, administrazioarekiko auzien arloko legitimazio prozesala, bide penalean herri-ekintzaz baliatzea eta txostenak egitea.

Hartara:

A. Berdintasun printzipioaren urraketak.

Bere eginkizunetan diharduenean, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak kasu partikular batean atzematen badu emakumearen egiazko berdintasunerako eskubidearen urraketa jakin bat gertatu dela, administrazio eskudunari edo Minis-

terio Fiskalari jakinarazi beharko dio, egitateak administrazio-legeak urratzen baditu edo zigor arloko arau-haustea bada.

Zehaztu beharra dago, administrazioaren arloko arau-hauste hutsa baldin bada, arau-hauste hori administrazio publiko eskudunari jakinaraziko zaiola, behar den zehapen espedientia izapidetu dezan. Atzemandako arau-haustea delitua edo hutsegitea bada, berriz, Zigor Kodean ezarritakoari jarraituz, Ministerio Fiskalari emanen zaio horren berri, behar diren eraginetarako.

B. Administrazioarekiko auzien arloko legitimazio prozesala.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak ex lege "arloko eskumenak dituen erakunde publikotzat" hartua dago, Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko bosgarren eta seigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren ondorioetarako.

Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, berriz, zenbait aldaketa egin zituen arlo prozesalean. Zehazki, seigarren xedapen gehigarriak, lehenbiziko puntuan, honako aldaketak sartzen ditu Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa:

Bat. 19. artikuluko 1. idaz-zatiari i) letra gehitzen zaio, honako testuarekin:

1. Emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunerako eskubidea aldezteko, legitimaturik egonen dira, ukitutakoez gainera eta betiere haien baime-narekin, legez eratuta dauden eta funtsezko helburu gisa emakumeen eta gizonen tratu-berdintasuna defendatzea duten sindikatuak eta elkarteak, beren afiliatuei eta kideei dagokienean.

2. Ukitutakoa zehaztu gabeko edo determinatzen zaila den pertsona multzo bat denean, interes lauso horiek epaian defenda daitezen eskatzeko legitimazioa soilik arloan eskumena duten erakunde publikoena izanen da, bai eta ordezkaritza handiena duten sindikatuena eta emakumeen eta gizonen berdintasuna funtsezko helburu gisa duten estatu mailako elkarteena ere, ezertan kendu gabe, ukitutakoak determinaturik badaude, haiek izan dezaketen legitimazio prozesala.

3. Sexu-jazarpeneko eta sexuarengatiko jazarpeneko auzietan jazarpena jaso duen pertsona izanen da legitimazioa duen bakarra."

Horrenbestez, aipatu aurreikuspenaren babesean, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak,

“arloan eskumena duen organismo publikoa” dela argi eta garbi baitago, zuzenean legitimaturik egonen litzateke arlo prozesalean emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunerako eskubidea aldezteko.

C. Zigor arloko ekintza publikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak herri-akusazioa aurrera eramanez ahal izanen luke, Prozedura Kriminaleko Legean ezarritako moduan, emakumearen aurkako indarkeria kasuetan, baldin eta, daukaten larritasunarengatik, Nafarroako Parlamentuak hori eskatzen badio. Horretarako, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak behar diren hitzarmenak egin ahalko ditu abokatuen elkargoekin, edo bestela, behar diren laguntza teknikoko kontratuak.

Prozedura Kriminaleko Legeko 101. artikuluan xedatuari jarraituz, zigor arloko ekintza publikoa da. Lege horrek bigarren puntuaren eranstean du herritar espainiar guztiek hura erabili ahal izanen dutela, Legeak ezarritakoei jarraituz.

Konstituzio Auzitegiak, 311/2006 epaian, pertsona juridiko-publikoak herri-ekintzaz baliatzeko titulartasunaren auzia aztertu zuen, eta aitortu zuen haiek eskubidea dutela zigor arloan jarduteko, legean ezarritakoaren arabera. Zehazki, Konstituzio Auzitegiak honakoa dio:

“herritarrak” terminoak duen edukiari buruz. Espainiako Konstituzioko 125. artikulua herri-ekintzaren titularrak nor diren aipatzen duenean, deklaratu dugu argudio terminologikoa ezin dela mantendu “zeren eta Konstituzioko beste arau batzuei dagokienez, auzitegi honek jo izan baitu termino hori ez dagokiela soilik pertsona fisikoei... Azken batean, Konstituzioko 53.2 artikuluko “herritarrak” terminoa... pertsona juridikoen subsuntzioa bidera dezakeen zentzuren batean interpretatu behar bada, inongo arrazoirik ez dago interpretazio murriztailea justifikatzeko termino hori erabiltzen denean 125. artikuluan edo herri-ekintzari buruzko araubide indarduna artikulatzen duten arauetan (STC 241/1992, de 21 de diciembre , F. 4; honakoetan berretsia: STC 34/1994, de 31 de enero , F. 3; 50/1998, de 2 de marzo , F. 2).” F. 3.

“Espainiako Konstituzioko 125. artikuluan ezarritakoari jarraituz, herri-ekintza baliatu daiteke “legeak ezarritako moduan eta zigor arloko prozesuetan.” Halaber, BJLOko 19. artikuluko 1. idatz-zatiak ezartzen du herri-ekintza “legeak ezarritako kasuetan eta moduetan” baliatu daitekeela. Bestalde, Prozedura Kriminaleko Legeak herri-ekintza onartzen du zigor arloko prozesu, delitu eta hutsegite guztietan, salbu eta soilik alde bakarraren ekimez jazarri daitezkeen arau-hausteak epai bidean

jartzeko (Prozedura Kriminaleko Legeko 104. art.) [murriztapenak jartzen dira zigor arloko ekintzarako atzerriko herritarrei, ezkontideei edo familiartekoei dagokienez zenbait delitutan, edo kausako epaileari edo magistratuari, edo eskubide zibilak ez dituenari edo kalumnia delituarengatik bi aldiz zigortuta izan denari dagokienez (Prozedura Kriminaleko Legeko 101., 102. 103. artikulua)]. Horrenbestez, lege orokorretan ez dira inolaz ere espresuki pertsona juridiko-publikoak herri-ekintzaz baliatzetik kanpo uzten” F.4.

Indarkeria Sexistaren Aurkako Neurri Integralak hartzeari buruzko Foru Legeak (Ley Foral 12/2003, de 7 de marzo), antzeko terminoetan, zilegitasuna aitortzen die Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta toki entitateei, berdintasunaren aldeko organismoen edo beren xedearen artean emakumearen eskubideen defentsa duten entitate eta elkarten bitartez, herri-ekintzaz baliatu ahal izateko indarkeria sexistako kasu larrienean, baldin eta biktimak hori eskatzen badiu edo delitu-ekintzak biktimaren heriotza badakar.

Azaldutakoaren ondorioz eta herritarren eskubideak aldeztearen eta babestearen arloan Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren eskumena diren eginkizunei erreparatuta, Nafarroako Parlamentuaren goi ordezkaria den aldetik, gure ustez garrantzi berezia eman behar zaio emakumearen indarkeria sexistaren aurka babesteko duen betebeharrari. Horrenbestez, Arartekoaren erakundea arautzen duen Foru Legean sartu ahalko da Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak legitimazioa duela herri-ekintzaz baliatzeko emakumearen aurkako indarkeria kasuetan, baldin eta kasu horien larritasuna dela-eta Nafarroako Parlamentuak hori eskatzen badio.

Azkenik, proposaturiko testuak aipamen bat jasotzen du Nafarroako Arartekoak eginkizun hori aurrera eramateko erabil ditzakeen bitartekoei buruz. Horri dagokionez, behar diren hitzarmenak egin ahalko ditu abokatuen elkargoekin, edo bestela behar dituen laguntza teknikoko kontratuak egin ahalko ditu.

D. Txostenak.

Azkenik, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak bete dezakeen beste eginkizun bat da txosten bereziak edo monografikoak egitea Nafarroako administrazio publikoaren jardueran emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunaren printzipioa betetzen den ebaluatzeko; bestela, ebaluazio hori urteko txostenean jaso ahalko du. Halaber, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako toki entitateek egiten dituzten aukera berdintasunerako planen garapena eta aplikazioa ebaluatu ahalko ditu.

Aurreko lerrokadan jasotako eginkizuna ez da, berez, berria: izan ere, txosten bereziak egiteko ahalmena eta Nafarroako Parlamentuari urtero txosten bat aurkezteko betebeharra jada Arartekoaren erakundea arautzen duen Foru Legeko 36. artikuluan jasota daude. Hala eta guztiz ere, gure ustez, Nafarroako administrazio publikoen jardueran emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunaren printzipioa betetzeari buruzko ebaluazioa berriaz aipatzea oso baliagarria izan daiteke arlo honetan egiten diren aurrerapenei buruz gogoeta egiteko eta eskubide hori egiaz lortzeko neurriak sustatzen jarraitzeko.

VI. BITARTEKO PERTSONALEN ETA MATE-RIALEN BALIZKO BEHARRARI BURUZKO ERREFERENTZIA.

Erakundeak emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunaren arloko eskumenak gehiago garatu behar izateak, ezinbestez ekarriko du egun dagoen jarduera handitzea. Horrenbestez, litekeena da beharrezkoa izatea aurrekontu-gastuak zerbait handitzea. Hori bere garaian planteatuko litzateke, efizientzia eta gastu-publikoari eusteko beharra kontuan izanda. Helburua izanen litzateke Nafarroako abokatuaren elkargoekin egin beharreko hitzarmenak finantzatzea eta abokatuekin, beharrezkoa bada, laguntza teknikoko kontratuak egitea.

VII. ERANSKINA: APLIKATZEKOAK DIREN ESTATUKO ETA NAFARROAKO LEGE NAGUSIEN ERREFERENTZIA.

Nazioartean eta Europan ugari dira emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunari buruzko arauak. Hori dela eta, eta kontuan izanda horren

zati handi bat Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Planean jasota daudela, eranskin honetan soilik Estatuan eta Nafarroako Foru Komunitatean dauden lege nagusiak aipatuko ditugu, argibideak emate aldera.

1. ESTATUKO LEGEAK.

- Espainiako 1978ko Konstituzioa.
- Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren Kontrako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa, eta hura garatzeko arauak.
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunari buruzkoa.

2. FORU LEGEAK.

- 22/2002 Foru Legea, uztailaren 2koa, Indarkeria Sexistaren Aurkako Neurri Integralak hartzeari buruzkoa, martxoaren 7ko 12/2003 Foru Legeak aldatua.
- 33/2002 Foru Legea, azaroaren 28koa, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna sustatzekoa.
- Abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzkoa.
- Otsailaren 26ko 16/2007 Foru Dekretua, Indarkeria Sexistaren Aurkako Neurri Integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duena.

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko langileen Estatutua aldatzeko proposamena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko langileen Estatutua aldatzeko proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2009ko apirilaren 28ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“Soldaduska betetzen emandako denbora kon-tuan hartzea antzinatasunari dagokionez, ondorio guztietarako”

Zioak: Aldarrikapen historikoa izateaz gain, gaur egun amortizazio izaera du.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“Hitzarmenaren aplikazio-esparrutik at uztea izendapen askeko karguak eta, bereziki, legelari nagusiaren kargua”

Zioak: Kargu hori, bere izaera dela-eta, arautu behar da bere izendapenarekin batera doazen ebazpenen arabera, Nafarroako Gobernuko goi karguen pare, hori ere goi kargu bat baita.

